I. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

### Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

### Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFE)

**Dibisioko eta/edo Departamentuko 5 burutza-lanpostu amortizatzea eta hurrenez hurren Zerbitzu Orokorretako eta Laguntza Zerbitzuetako 2 zuzendaritza-lanpostu sortzea.**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2021eko irailaren 30ean eginiko ohiko bileran (5/21 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«*Lehenengoa:* Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen dibisioko burutzari eta Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen burutzari dagozkien lanpostuen amortizazioa xedatzea, Antolaketa eta Hobekuntzarako Departamentuko burutzarekin batera; horien ordez haiei esleitutako eginkizunak bilduko dituen Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzako lanpostu bakarra sortuko da.

Horrela sortutako Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzako lanpostua, irauten duen bitartean, Grasa Marcuello jaunaren titulartasuneko mediku-lanpostuari lotuta egongo da eta baldintza horrek izaera pertsonala du.

*Bigarrena:* Pertsonak Zuzentzeko eta Zerbitzu Orokorren Departamentuko burutzei dagozkien lanpostuen amortizazioa xedatzea; horien ordez Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako lanpostu bakarra sortuko da, haiei esleitutako eginkizunak bilduko dituena.

*Hirugarrena:* Orain sortzen diren lanpostuen funtzioak, eskumenak eta erantzukizunak amortizatutako lanpostuei dagozkienak dira –metatuta–, hargatik eragotzi gabe hurrenez hurren Erakundearen Egitura Organikoaren Erregelamenduak eta LPZk aurki ezarriko dituen eran eta hedakuntzan garatuko den horien zehaztapen doitua.

*Laugarrena:* Kasuan kasuko titularrak zuzendaritzako lanpostu berrietara atxikitzea, hau da, Eneko Gutiérrez Coterón jauna Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza postura eta Luis Antonio Grasa Marcuello jauna Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritza postura; lan-kontratuak berritu egingo dira, kasu batean zein bestean, aurrekarietan jasotako berezitasunak kontuan hartuta.

*Bosgarrena:* Erabaki honek hartzen den egunean izango ditu ondorioak; dena dela, geroago derrigorrezkoa da argitaratzea, erantsitako dokumentuan adierazitako moduan eta irismenarekin. Lanpostu berrietan jarduteko ezaugarriak, betekizunak eta baldintzak horrela ezarritakoak izango dira.

*Seigarrena:* Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 24ko 2/2021 Foru Arauaren 12. artikuluan, I. kapituluko gastuen gehikuntza mugatzeari buruzkoan, jasotako aurreikuspenaren arabera, hemen definitutako plazak eta lanpostuak amortizatzeak eta aldi berean sortzeak ez dakar I. kapituluko gastuen gehikuntza, horien eragina neutroa delako.

Zazpigarrena: Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta arrazoitzeko balio duen aurreko txostena ere helaraztea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. eta 88. artikuluetan aurreikusitakoa betez; halaber, ohartarazi egingo zaie erabaki honen aurka lan-arloko jurisdikzio-bidean demanda jarri ahal izango dutela, jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean.

*Zortzigarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta GUFEren intranetean eta webgunean argitaratzeko agintzea.»

Bilbon, 2021eko irailaren 30ean.—Gerentea, David Latxaga Ugartemendia

eek: BAO-2021a199-(I-792)

ERANSKINA

**LANPOSTUEN AMORTIZAZIOAK**

*111—Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen Dibisioa*

| Lan-postua | Izena | T/A | FL | LM | BS | Ordainsariak | | Betetzeko eskakizunak | | | | | | | Baldintzak | | | | | | PE1 | PE2 | Oharrak | Lan-postua | Lantokia | Deskripzioa | Derrigortasun data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | OM | Osag. ber. (€) | Ad. | T/A | ES | AE | Plaza | Titu. | HE | ES | DM | DB | B | T | X | | | | | | | |
| 1002 | ZERB. SOZIOSAN. ETA ADIN. ZERB. DIB. BURUA | A/A1 | L | B | 1 | 25 | 43.738,41 | 1 | A/A1 | | | 1004 | | 3 | | | B | B | E | B | B | E | 8 | 1 | 10000 | UGASKO | 2012/12/31 |

*112—Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen Dibisioa*

| Lan-postua | Izena | T/A | FL | LM | BS | Ordainsariak | | Betetzeko eskakizunak | | | | | | | Baldintzak | | | | | | PE1 | PE2 | Oharrak | Lan-postua | Lantokia | Deskripzioa | Derrigortasun data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | OM | Osag. ber. (€) | Ad. | T/A | ES | AE | Plaza | Titu. | HE | ES | DM | DB | B | T | X | | | | | | | |
| 1003 | DESG. PERTS. ETA GIZART. ZERB. DIB. BURUA | A/A1 | L | B | 1 | 26 | 42.241,45 | 1 | A/A1 | | | 1004 | | 3 | | | B | B | E | B | E | E | 8 | 1 | 10000 | UGASKO | 2012/12/31 |

*13—Zerbitzu Orokorren Departamentua*

| Lan-postua | Izena | T/A | FL | LM | BS | Ordainsariak | | Betetzeko eskakizunak | | | | | | | Baldintzak | | | | | | PE1 | PE2 | Oharrak | Lan-postua | Lantokia | Deskripzioa | Derrigortasun data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | OM | Osag. ber. (€) | Ad. | T/A | ES | AE | Plaza | Titu. | HE | ES | DM | DB | B | T | X | | | | | | | |
| 1118 | ZERB. ORK. DEP. BURUA | A/A1 | L | B | 1 | 29 | 51.111,00 | 1 | A/A1 | | | 1002 | | 3 | | | B | B | E | B | E | E | 6 | 1 | 10000 | UGASKO | |

*14—Antolaketa eta Hobekuntzarako Departamentua*

| Lan-postua | Izena | T/A | FL | LM | BS | Ordainsariak | | Betetzeko eskakizunak | | | | | | | Baldintzak | | | | | | PE1 | PE2 | Oharrak | Lan-postua | Lantokia | Deskripzioa | Derrigortasun data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | OM | Osag. ber. (€) | Ad. | T/A | ES | AE | Plaza | Titu. | HE | ES | DM | DB | B | T | X | | | | | | | |
| 1145 | ANT. ETA HOB. DEP. BURUA | A/A1 | L | B | 1 | 26 | 42.241,45 | 1 | A/A1 | | | 1004 | | 3 | | | B | B | E | B | E | E | 27 | 1 | 10000 | UGASKO | |

eek: BAO-2021a199-(I-792)

## LANPOSTUAK SORTZEA

### *11—Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritza*

| Lan-postua | Izena | T/A | FL | LM | BS | Ordainsariak | | Betetzeko eskakizunak | | | | | | | Baldintzak | | | | | | PE1 | PE2 | Oharrak | Lan-postua | Lantokia | Deskripzioa | Derrigortasun data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | OM | Osag. ber. (€) | Ad. | T/A | ES | AE | Plaza | Titu. | HE | ES | DM | DB | B | T | X | | | | | | | |
| 1204 | LAGUNTZA ZERBITZUEN ZUZENDARIA | A/A1 | L | B | | 29 | 51.111,00 | 1 | A/A1 | | | | | | | | B | B | E | B | E | E | 31-33 | 1 | 10000 | UGASKO | |

### *16—Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza*

| Lan-postua | Izena | T/A | FL | LM | BS | Ordainsariak | | Betetzeko eskakizunak | | | | | | | Baldintzak | | | | | | PE1 | PE2 | Oharrak | Lan-postua | Lantokia | Deskripzioa | Derrigortasun data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | OM | Osag. ber. (€) | Ad. | T/A | ES | AE | Plaza | Titu. | HE | ES | DM | DB | B | T | X | | | | | | | |
| 1205 | ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA | A/A1 | L | B | | 29 | 51.111,00 | 1 | A/A1 | | | | | | | | B | B | E | B | E | E | 32-33 | 1 | 10000 | UGASKO | |

## LITERALEN ERANSKINA

| T/A: Sarbideko taldea/azpitaldea | FL: Funtzionarioa edo lan-kontratukoa | LM: Lanpostu mota | BS: Betetzeko sistema |
|---|---|---|---|
| A: Unibertsitateko graduko tituludunak<br>A1: (* lehen A taldea)<br>A2: (* lehen B taldea)<br>C:<br>C1: Batxilerra edo teknikaria (* lehen C taldea)<br>C2: DBH-ko graduatua (* lehen D taldea)<br>LLTT: Langile-taldeak (* Lehen E taldea)<br>(*) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorreko bigarren paragrafoa aplikaturik). | F: Funtzionario<br>L: Lan kontratua | B:Berezitua<br>N: Normalizatua | 1: Lehiaketa<br>2: Izendapen askea |

| Betetzeko eskakizunak | | |
|---|---|---|
| Admin.: Administrazioa | ES: Eskala | AE: Azpieskala |
| 1: Aldundia<br>2: Estatu Gaikuntza<br>3: Edozein herri administrazio | O: Orokorra<br>B: Berezia<br>A: Biak | 1: Teknikariena<br>2: Administrariena<br>3: Laguntzaileena<br>4: Menpekoena<br>5: Zerbitzu bereziak |
| Plaza: Lanpostua eskura dezaketen plantilako kategoriak (ikus erantsitako zerrenda)<br>Titu.: Titulazioa (ikus erantsitako zerrenda)<br>HE: Hizkuntz Eskakizuna<br>1: H.E.1<br>2: H.E.2<br>3: H.E.3<br>4: H.E.4<br>5: H.E.4 T.G. | | |

| Ordainsariak |
|---|
| OM: Lanpostu-mailako osagarriaren maila<br>Osag. ber: Osagarri berezia |

| Baldintzak (B = Bai / E = Ez) | |
|---|---|
| ES: Esperientzia (1, 2, .., 9 urte edo E)<br>DM: Dedikazio Murriztua<br>DB: Dedikazio Berezia | B: Bateraezintasuna<br>T: Txandakotasuna<br>X: Prestasuna |

| Plusak (B = Bai / E = Ez) |
|---|
| PE1: Toxikoa, Nekagarria edo Arriskutsua<br>PE2: Gaueko edota Jaiegunetako lana |

| Plaza | | | Titulazioak |
|---|---|---|---|
| 1002 | 110<br>210 | Goi-mailako teknikaria<br>Ekonomialaria | |
| 1004 | 110<br>115<br>410<br>500<br>510 | Goi-mailako teknikaria<br>Goi-mailako teknikaria - Prebentzioko goi-mailako tituluduna<br>Psikologoa<br>Mediku geriatra<br>Medikua | |

| Oharrak | |
|---|---|
| 6 | Lanpostuaren edukiari buruzko proba espezifikoa. |
| 8 | Lanpostuaren edukiari buruzko proba espezifikoa. Baloratu gabeko lanpostua. |
| 27 | Lanpostuaren edukiari buruzko proba espezifikoa eta kalitatea bermatzeko prestakuntza osagarria. Baloratu gabeko lanpostua. |
| 31 | Laguntzaren arloko prestakuntza espezifikoa. |
| 32 | Berariazko prestakuntza zuzendaritzaren arloan. |
| 33 | Lanpostuak betetzea, GUFEren estatutuak aldatzeari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 10. artikulua eta horrekin bat datozenak. |

eek: BAO-2021a199-(I-792)